

'Bizkaia'-ren aurkezpen ekitaldia

Bizkaitarrez beteta antzokia

Herrialdeko esparru guztietako ordezkari ugari bildu ziren Kafe Antzokian atzo iluntzean


Guztiek euren poza agertu zuten *Bizkaia* gehigarria sortu delako

Bizkaiko gizartea ederto ordezkaturik egon zen atzo *Bizkaia* gehigarriaren aurkezpen ekitaldian. Bilboko Kafe Antzokia erabat bete zen handik eta hemendik etorritako bizkaitarrekin. Erakundeetako ordezkari ugari hurbildu zen atzoko ekitaldira. Hantxe izan zen Sabin Intxaurre Justizia sailburua, Abel Muniategi sailburordearekin batera; Sabin Arana, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapen diputatua; Juan Carlos Goienez, Bermeoko alkatea; Gotzon Lobera, Bizkaiko Foru Aldundiko Hizkuntza Politikarako zuzendaria; Koldo Ordozgoiti, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Komunikazio arduraduna; Lander Etxebarria, Bilboko udaleko zinegotzia; eta Andoni Aldekoa, Iñaki Azkuna Bilboko alkatearen prentsa arduraduna.


Politikarien ordezkariak ere zabala izan zen. Karmelo Landa etorri zen EHtik, Josu Legarreta EAJtik eta Javier Madrazo EB-IUtik. Madrazok ez zuen sakelako telefonoa itzali eta soinuak hasi zitzaion Martxelo Otamendi berbetan ari zela.

Euskal sindikatuetaordezkariek ere ez zuten huts egin atzoko ekitaldian. Jose Elorrieta eta Gabriel Zeberio izan ziren ELAko ordezkariak. Han izan ziren berbetan LABeko Txutxi Ariznabarreta, Txarli Martinez eta Itziar Lopategirekin. EILAS eta EHNEko ordezkariak ere *Bizkaia*-ren aurkezpenean izan ziren.

EGUNKARIAko gehigarriak lagun ugari du kirol munduan. Jose Mari Arrate presidenteak, Jose Anjel Iribarrek, eta Txato Nuñezek kolore zurigorria eman zioten aurkezpenerari. Kolore zuria pilotariak eman zioten: Oier Zearra, Imanol Agirre, Felix, Alberdi eta Lander Kafe Antzokira bildu ziren, Katxin Uriarte handiaren babesean. Acero surflariak eta Urdaibaiko, Bermeoko eta Elantxobeko arraun taldeetako arduradunek ere ez zioten huts egin *Bizkaia*-ri. Hirukote aproposa izan genuen atzo bertotan egiteko, Xabier Amuriza, Jon Lopategi eta Arkaitz Estiballesek osatutakoa. Euskal-



Gotzon Lobera eta Jose Elorrieta. Martin Garitano Gara-ko zuzendari ondokoa, Gotzon Lobera Bizkaiko Diputazioko Euskara zuzendaria eta Jose Elorrieta ELAko idazkari nagusia, Martxelo Otamendirekin. Eskuineko irudian, Bizkaia gehigarriaren lehenengotako irakurleak.



Erkizia eta Garateren besarkada. Tasio Erkiziak eta Gotzon Garatek elkar besarkatu zuten sarreran, Torrealdai agurtu ostean.

gintza munduak ere harrera beroa eskaini zion *Bizkaia*-ri. Xabier Kintana eta Andres Urrutia etorri ziren Euskaltzainditik, Adolfo Arejita Labayrutik, Maribi Unamuno Mendebaldetik, Rosa Miren Pagola Deustuko Unibertsita-

tetik. Horiez gain, han izan ziren Erramun Osa (AEK), Gotzon Garate, Kontseiluko Pili Kaltzada eta Jose Javier Iñigo, Joserra Etxebarria, Txema Larrea eta beste batzuk.

Komunikabideetako kideek ere ongiatorria eman zioten *Biz-*



Radio Euskadiko zuzendaria. Radio Euskadiko zuzendari Iñigo Camino, Iñaki Uriarekin eta Martxelo Otamendirekin.

kaia-ri. Bizkaia Irratiko Juan Mari Iralagoitia, Radio Euskadiko Iñigo Camino, Gara-ko Martin Garitano eta Deia-ko Xabier Lapitz Kafe Antzokian izan ziren BBK-ko Jon Mancisidor eta Sabino Arana Fundazio-ko Aitor Bikandirekin.

Elkarri-ko Gorka Espiau eta Bakearen Aldeko Koordinakundeko Ibai Arbide eta UEMAko Kontxi Gabantxo ere aurkezpenean izan ziren.

Ramon Basaldua
BILBO



XOUSE SIMAL / JOSU ETXEBARRIOSTE